

JURISDIKZIO AHALMENA ETA HORI EGIKARITZEKO
ORGANOAK

I. BOTEREEN BANAKETAREN TEORIA ETA BERE ONDOREAK
ORGANOEKIKO

Botere guztiak Erregearengan biltzen ziren.

Botereen banaketaren teoria: Montesquieu (XVIII. mendea, Frantziako Iraultza)

- ❖ Botere legegilea
- ❖ Botere exekutiboa
- ❖ Botere judiziala

Botereen banaketa Espainiako estatuan: 1978 EK. Zer harreman dago botereen artean?

- ❖ A) Botere legegilearen eta judizialaren artean
- ❖ B) Botere exekutiboaren eta judizialaren artean

A) Botere legegilea eta judiziala

- Botere legegileak legeak egiten ditu
- Botere judizialak epaitu + epaitutakoa betearazi = Zuzenbide objektiboa kasu konkretuan aplikatzen du

Baina zeintzuk dira ezberdintasunak eta harremanak bi botereen artean?

- 1) Legegintza jurisdikzioarekiko *prius*-a da
 - Botere Judiziala legean oinarriturik antolatu behar da
 - Bere lana burutzean, Botere Judizialak legea errespetatu behar du
 - Legeak prozesua eta akzioa arautzen ditu
- 2) Legeak eta epaileek emandako epaiak aginduzkoak dira
 - Legea: abstraktua, orokorra, berriztatzailea
 - Epaiak: konkretua, berezia, deklaratihoa

B) Botere exekutiboa eta judiziala

- Botere exekutiboa (Administrazioa) = legeak betearaztearen arduraduna, gizartearen ongizatea lortzeko helburuarekin

- Botere Judiziala = Zuzenbidea kasu konkretura aplikatzeaz arduratu
 - Botere exekutibo eta judizialaren arteko aldeak:
1. Administrazioak, zenbaitetan, zuzenbide objektiboa aplikatzen du kasu konkretura (adb. trafiko isunak):
 - Ez da bere jarduera nagusia
 - Kudeaketa lana burutzeko soilik onartu
 - Beti berriki daiteke jurisdikzioan
 2. Administrazioaren hierarkia: Jurisdikzioan organo guztiak dira independenteak.
 3. Biek inpartzialtasunez jokatzen dute.
 - Ñabardurak: Inpartzialtasuna = neutralki jokatzea, objektiboki, interesik gabe.
 - Bi interesgabezi mota desberdinu:
 - Interesgabezi subjektiboa
 - legezkotasunaren aplikazio zorrotza, alderdiren baten aldeko jarrerarik hartu gabe (familia-harremanengatik, adiskidetasunagatik, kidesun politikoengatik...)
 - Administrazioan zein jurisdikzioan ematen da
 - Interesgabezi objektiboa
 - Erabaki beharreko objektu edo material interesik ez izatea.
 - Ez da Administrazioan ematen, erabakiak hartzean beti hiritarren interesen alde egiten delako.
 - Epailerek “*besteren gauzetan*” (*cosa ajena*) hartzen dituzte erabakiak. Erabaki beharreko materia ez zaie axola.

II. “BOTEREA”, “SUBIRANOTASUNA”, “AHALMENA” ETA “JURISDIKZIO-AHALMENA” KONTZEPTUAK

1) BOTEREA (poder)

2) SUBIRANOTASUNA (soberanía)

- EK 1.2 art: “Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio Estatuari botereak”

3) AHALMENA (potestad)

Definizioa: “Ahalmena subiranotasunetik eratortzen da eta bere titularra berarekin harremanetan dauden gainerako guztien gainetik ezartzen du. Ahalmenak gainerakoek jokabidea lotu dezakeen aginte-indarra darama bere barne, beharrezkoa denean indarra erabili daitekeelarik” (MONTERO AROCA)

4) JURISDIKZIO-AHALMENA (potestad jurisdiccional)

- Jurisdikzio-ahalmena = jurisdikzioa
- Iturriak: 1978ko EK + 1985eko BJLO

Definizioa: Estatuko subiranotasunetik eratorritako ahalmena da; era ezeztazinean epaituz eta epaitutakoa betearaziz, Zuzenbidea kasu konkretuan aplikatzeko ahalmena. Ahalmen hau independenteak diren epaile eta magistratuz osatutako epaitegi eta auzitegiek eskusibotasunez egikaritzen dute.

III. “JURISDIKZIO”AREN KONTZEPTUA ETA BERE ERLATIBOTASUNA

- Betidanik “*justizia eman*” da, funtzio jurisdikzionala egikaritu da, Zuzenbidea aplikatu da kasu konkretura.
- Garai historikoaren arabera esanahi ezberdinak izan ditu / era ezberdinetan egikaritu da:
 - Titulartasuna: erregeak, estatuak... izan du
 - Funtzioa burutu duen organoa: epaile profesionalak, legoak, jurista edo legegizonak...
- ❖ Jurisdikzioa = kontzeptu erlatiboa, herriaren eta momentu historikoaren arabera aldatzen dena.
- ❖ Oinarria:
 - ❖ 1978ko EK: Zuzenbidezko Estatu Demokratiko eta Soziala
 - ❖ 1985eko BJLO

IV. JURISDIKZIO-AHALMENA ETA BERE EGIKARITZE-ESPARRUA

- a) Oinarrizko eskubide eta askatasunen babesa
- b) Eskubide subjektiboen babesa
- c) Zigorrek ezartzeko monopolioa
- d) Administrazioaren jardueraren fiskalizazioa
- e) Legeen konstituzionaltasunaren kontrola

V. BOTERE JUDIZIALAREN ESANAHI KONSTITUZIONALA

- BJ zentzu zabalean: oro har, ahalmen jurisdikzionala duten organo-multzoa. Botere Judizial Politikoa
- BJ zentzu hertsian: aurrekoen barnean ahalmen jurisdikzionala duten zenbait organok osatzen dute. Botere judizial antolakuntza (EK VI. Titulua + BJLO)

1. ZENTZU ZABALA: JURISDIKZIOA DUEN ORGANOA

Funtzio jurisdikzionala betetzen duten organo guztiek Botere Judiziala osatzen dute.

- Organo arruntak (BJLO)
- Organo bereziak (EK)

2. ZENTZU HERTSIA: ANTOLAKUNTZA

- ❖ Konstituzioa, Botere Judizialari buruz aritzean, BJren *antolakuntzaz* dihardu: epaitegi eta auzitegietan ahalmen jurisdikzionala duten epaile eta magistratuez.
- ❖ Jurisdikzio organo arruntak bakarrik. Kanpo gelditzen dira organo bereziak: Konstituzio Auzitegia, Kontu-auzitegia, Auzitegi militarrek, Zinpekoen Epaimahaia, Tradiziozko eta Ohiturazko Auzitegiak,...

BJren antolakuntzaren ezaugarriak:

VI. JUSTIZIA HERRITIK ERATORTZEN DA ETA ERREGEAREN IZENEAN ADMINISTRATZEN DA

EK 117.1 art: “Justizia herritik eratortzen da eta Erregearen izenean Botere Judiziala osatzen duten epaile eta magistratuek (independentek, mugiezinak, erantzule eta legearen inperiora soilik meneratuak) administratzen dute”.

AHALMEN JURISDIKZIONALAREN PRINTZIPIO POLITIKOAK

VII. AHALMEN JURISDIKZIONALAREN PRINTZIPIO POLITIKOAK

1. Jurisdikzioaren batasun printzipioa (*unidad*)
 - EK 117.5 art.
 - BJLO 3.1 art.
2. Jurisdikzioaren eksklusibotasun printzipioa (*exclusividad*)
 - EK 117.3 art.
 - BJLO 2.1 art.
3. Legezko epailearen printzipioa (*juez legal*)
 - Zentzu positiboa, EK 24.2 art.
 - Zentzu negatiboa, EK 117.6 art.

VIII. JURISDIKZIOAREN BATASUN-PRINTZIPIOA

- EK 117.5 art.: “Jurisdikzio-batasun printzipioa du oinarri auzitegien antolamendu eta jardunak. Legeak arautuko du jurisdikzio militarra nola gauzatu esparru hertsiki militarrean eta setio-egoeretan, Konstituzioaren printzipioekin ados”.
- BJLO 3.1 art.: “Jurisdikzioa bakarra da eta lege honek aurreikusitako Epaitegi eta Auzitegiek egikaritzen dute, Konstituzioak beste organo batzuei onetsitako ahalmenei kalterik egin gabe”.

1. ESANAHIA

Estatu-ereduak eragina du botereen banaketan (EK 1.2 art.)

- Estatu federala
- Estatu unitarioa
- Estatu autonomikoa

Ahalmen jurisdikzionala subiranotasun popularretik eratortzen da, ondorioz, Espainiak Botere Judizial bat eta bakarra du.

Jurisdikzio bakarra Espainia osorako, banaezina.

Autonomia Erkidegoek BE + BL dute; baina ez BJik.

2. EZAUGARRIAK:

- Organoen aniztasuna: jurisdikzio ahalmena epaitegi eta auzitegi ezberdinek egikariturako dute = denak Espainiako BJ bakarraren parte
- Jurisdikzioa BANAEZINA da: ahalmen jurisdikzionala osotasunean esleitzen da (ez zatika)
- Banatzen dena ESKUMENA da (competencia): jurisdikzio ahalmena egikaritzen den eremua. (aplikazio-eremua, lurraldea, materia... -ren arabera)

3. ONDORIOAK

1978ko EKK batasun-printzipioa berariaz aurreikusten du.

Batasun-printzipioa:

- Espainiar auzitegien antolaketa-irizpidea
- Epaile eta magistratuen independentziaren bermea

IX. ORGANO JURISDIKZIONALAK: KONTZEPTUA ETA MOTAK

1. KONTZEPTUA

Jurisdikzio-organoak: Funtzio jurisdikzionala -epaitzea eta epaitutakoa betearazteko ahalmena- burutzen duten estatuko organoak.

2. MOTAK

Oinarria: “Jurisdikzio-batasun printzipioa du oinarri auzitegien antolamendu eta jardunak. Legeak arautuko du jurisdikzio militarra nola gauzatu esparru hertsiki militarrean eta setio-egoeretan, Konstituzioaren printzipioekin ados” (EK 117.5 art.)

❖ Doktrinak honako sailkapen hau egiten du:

- Eskumenaren arabera
- Antolakuntzaren arabera

A. EMANDAKO ESKUMENAREN ARABERA

- Eskumen arrunta (competencia general u ordinarios)
 - BJLO 9.2 art.: ordena zibilaren “*vis attractiva*”.
 - BJLO 9.3 art.: zigor ordena
- Eskumen espezializatua (competencia especializada)
 - Administrazioa-rekiko auziak (BJLO 9.4)
 - Lan arloa (BJLO 9.5 art.)
- Eskumen berezia (competencia especial)
 - AN + epaitegi zentralak (BJLO 65.1 eta 88 art.)
 - Adingabeen epaitegiak (BJLO 97. art.)
 - EAIE (BJLO 87 bis + ter art.)
 - Debekatuta salbuespen auzitegiak: eskumen arauak urratuz sortutakoak, “*ex post facto*”

B. ANTOLAKUNTZAREN ARABERA

Arruntak (ordinarios): - BJLOk arautu (EK 122. art) + LO erreserba

Bereziak (especiales): BJLO ez den beste lege batzuetan aurreikusi eta arautu (EKK onartutakoak eta debekatutakoak)

B1. AUZITEGI ARRUNTAK

- BJLOk eratu, LO erreserba (EK 122 art.)

- Organo hauetako epaile eta magistratuen ezaugarriak (EKTik eratorriak):

- Lege Organikoaren bitartez zehaztutako estatutu pertsonal bakarra dute.
- Karrerako epaile eta magistratuak dira, formazio teknikodunak.
- Estatu mailan kidego bakarra osatzen dute.
- BJKNk kudeatu (= gobernu organoa)

- BJLOK aurreikusitako epaitegi eta auzitegi arruntak: (PDF)

- Auzitegiak (BJLO 53 – 83 art.): Auzitegi Gorena (AG), Auzitegi Nazionala (AN), Justizia Auzitegi Nagusiak (JAN) eta Probintzia- auzitegiak (PA).
- Epaitegiak (BJLO 84 – 103 art.): Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak, Merkataritza-arloko Epaitegiak, Instrukzioko Epaitegiak, Instrukzioko Epaitegi Zentrala, Zigor Epaitegiak, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak, Zigor Epaitegi Zentrala,

Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Zentrala, Lan arloko Epaitegiak, Espetxeratuena Zaintzako Epaitegiak, Espetxeratuena Zaintzako Epaitegi Zentrala, Adingabeen Epaitegiak, Adingabeen Epaitegi Zentrala eta Bake epaitegiak.

B2. AUZITEGI BEREZIAK

- BJLO ez den beste lege batzuetan aurreikusi eta arautu (ez dituzte aurreko baldintzak betetzen). Bi multzo:

a) **EKK berriaz aurreikusitakoak**. Botere Judizialaren antolakuntzatik kanpo dauden organoak:

▫ **Konstituzio Auzitegia**

- Arauketa: EK 159-165 art.+ KALO 2/1979, urriak 3.
- Funtzioak, beste batzuen artean:
 - EKren interprete nagusia
 - Legeen konstituzionaltasuna zaindu
 - Oinarrizko eskubideak zaindu, babes-errekurtsoa
 - Estatu eta AAEE-en arteko gatazkak argitu
 - Botereen arteko gatazkak argitu
- Erregeak izendatutako 12 kide, 9 urterako (berriztapenik ez!) hiru urtero 1/3.
- Izendapena: 4 kongresuak (3/5 gehiengoarekin), 4 senatuak (3/5 gehiengoarekin), 2 gobernuak eta 2 BJKNk (3/5 gehiengoarekin).
- Independentzia?

▫ **Kontu-auzitegia**

- Arauketa: EK 136 art. + LO 2/1982, maiatzak 12 + LO 7/1988, apirilak 5.
- Funtzioak:
 - Estatuaren eta sektore publikoaren kontu eta kudeaketa ekonomikoaren organo fiskalizatzailea
 - Diru publikoa kudeatzen duten pertsona eta organoen erantzukizuna kontrolatu eta epaitu
- Osaketa: 12 kontu kontseilari (aditu + 15 urte jardunean)

- Izendapena: 6 kongresuak, 6 senatuak, (3/5 gehiengoarekin) 9 urterako
- Kasazio errekurtoa / berrikuspen errekurtoa AGren 3. Sala
- **Auzitegi militarrek**
 - JO bereziak → EK 117.5 art.
 - Eskumena: eremu militarrean baino ez (“ámbito estrictamente castrense”) eta setio egoeran (BJLO 3.2 eta 9.2 art.)
 - Arauketa: LO 4/1987, uztailak 15, Jurisdikzio Militarren Eskumen eta Antolaketari buruzkoa. Garatu: 6/1988 Legea, apirilak 5; 9/1988 Legea, apirilak 21; LO 4/1981, ekainak 1; alarma, salbuespen eta setio egoera arautzen duena; LO 13/1985, abenduak 9, ZK Militarra arautzen duena; LO 2/1989, apirilak 13, Lege Prozesal Militarra.
 - Organo gorena: AGko 5. Sala
- **Ohitura eta tradiziozko auzitegiak** (EK 125 art.)
 - Valentziako Ibarreko Uren Auzitegia:
 - 8 epaile-sindikoz osatua.
 - Turia ibaiko bi ibarretako ureztatzaileekin zerikusia duten arazoak epaitzen dituzte (epaile), administrazio kontuez arduratzeaz gain (sindiko).
 - Hiru urtero aukeratu.
 - Murtziako Baratzeko Gizon Onen Kontseilua:
 - Eskumena: ureztatzaileen arteko gatazkak, hirugarrenei eragindako kalteen erreklamazioak, ureztatze-ordenantzen urraketak
 - Izaera administratiboa
 - Alkatea da betearazpen agintea
- **Zinpekoen Epaimahaia** (EK 125 art.)
 - Oinarria: “Hiritarrek Justizia Administrazioan parte hartu ahal izango dute Zinpekoen Epaimahaiaren bitartez” (EK 125 art.) + “Orobat, Justizia Administrazioan parte hartu ahal izango dute, zinpekoen epaimahaiaren bitartez, legeak erabakiriko moduan eta zehazturiko zigor prozesuetan, baita ohiturazko auzitegietan eta legean aurreikusitako gainerako kasuetan ere” (BJLO 19.2) eta

“1. Zinpekoen epaimahaien epaiketak probintzia-azitegiaren edo bestelako azitegien esparruan egingo dira, legeak ezarritako moduan. 2. Zinpekoen Epaimahaiari buruzko Lege Organikoan dago araututa zinpekoen epaimahaia nola osatuko den eta zer eskumen izango duen” (BJLO 83 art.).

- Arauketa: Zinpekoen Epaimahaiaren LO 5/1995, maiatzak 22.
- Zein organotan aritu? (Legeak berariaz debekatu AN)
 - PA
 - JAN (foruduna)
 - AG (foruduna)
- Osaketa (2. art): magistratu presidentea + 9 zinpeko (2 ordezeko)
- Eskumen materiala/objektiboa (1. art):
 - Gizahilketa eta mehatxuak
 - Bere karguaz baliaturik funtzionario publikoek burututako delituak: influentzi trafikoa, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea...
 - Bizilekuaren bortxaezintasunaren kontrako delituak
 - Sorospen-eginbearra ez betetzearen delitua
- Eskumen funtzionala:
 - Instrukzioa: Instrukzioko Epaitegia
 - Ahozko epaiketa: Zinpekoen Epaimahaia (PA)
 - Apelazio errekurtsua: JANaren Zibil eta Zigor Sala
 - Kasazio errekurtsua: AGren Zigor Sala

b) Nazioarteko azitegiak. Espainiako estatuak sinatutako nazioarteko hitzarmenetatik ondorioztatu.

Oinarria: “Lege organikoz, baimendu daiteke tratatuak egitea haien bidez nazioarteko erakunde edo instituzio bati esleitzeko Konstituziotik eratorritako eskumen batzuen erabilera. Gorte Nagusiek edo Gobernuak bermatu behar dute, kasuen arabera, tratatu horiek betetzen direla, eta orobat betetzen direla lagapenaren titular diren antolakunde nazioarteko edo nazioz gaidikoen ebazpenak” eta BJLO 2.1 art. (“Jurisdikzio-ahala baliatzea, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, legeek eta nazioarteko tratatuek zehaztutako epaitegi eta azitegiei dagokie soilik” (EK 93 art.)

❖ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia**

- GEEHk aurreikusi (1950)
- Jurisdikzioa Europako Kontseiluko estatu kideen gain (= epaile kopurua).
- Epaileak 9 urterako aukeratu, berriztapenik ez.
- Funtzionamendua:
 - Epaile bakarra: azterketa gehigarririk behar ez duten norbanakoen demandak ez onartzeko
 - Batzordeak (Comités): 3 epaile
 - Salak: 7 epaile. Jurisprudenzia.
 - Sala nagusia (Gran Sala): 17 epaile. Salen kontrako errekurtsuak aztertu, Ministroen Batzordeak eskatuta estatuek GEEAren epaiei men egin dieten adierazi, eskumen kontsultiboak.
- Strasburgon egoitza
- Norbanakoak legitimazioa du zuzenean bertara jotzeko eta demanda aurkezteko.

❖ **EB Justizia Auzitegiak**

- 2007ko Lisboako Hitzarmena
- Zuzenbide komunitarioaren aplikazioa
- Eremua: Europako Batasuna
- Egoitza: Luxenburgoko
 - A) Justizia Auzitegia (Tribunal de Justicia): estatu bakoitzeko epaile bana + abokatu orokorrak (-8- Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Espainia eta 3 estatu txikiak)
 - B) Auzitegi Orokorra (Tribunal General)
 - C) Auzitegi bereziak/espezializatuak (Tribunales especializados)

❖ **Nazioarteko Zigor Gortea**

- Nuremberg, Tokio, Jugoslavia, Ruandako bizipenen ondoren sortu

- 1998an, Erroman, Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutua onartu zen
- Ez dira parte: AEB, Txina, Errusia, India, Israel, Cuba, Irak...
- Helburua: gizateriaren kontrako krimenik larrienak epaitu (genozidio, gerra..)
- Hagan

X. BOTERE JUDIZIAL BAKARRA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ETA SUBROGAZIO KLAUSULAK
2. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ESKUMEN EREMUA
3. JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAK
4. MUGAPE JUDIZIALAK / AUZITEGI MUGAPEAK (demarcación judicial)
5. AUZIALDI JURISDIKZIONALAK AGORTZEA

XI. JURISDIKZIOAREN ESKLUSIBOTASUN PRINTZPIOA

- EK 117.3 art.: “Legeek zehaztutako Epaitegi eta auzitegiei soilik dagokie ahalmen jurisdikzionalaren egikaritza, era orotako prozesuetan, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, legeek ezarritako eskumen eta prozeduraren arauen arabera”.
- BJLO 2.1 art.: “Ahalmen jurisdikzionalaren egikaritza, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, legeetan eta nazioarteko itunetan zehaztutako Epaitegi eta Auzitegiei soilik dagokie”.

Artikulu hauetatik bi monopolio eta mugaketa bat ondorioztatzen dira:

1. Estatuaren monopolioa

Ahalmen jurisdikzionala estatuari dagokio, herritarren subiranotasunaren ondorio delako.

Baina, zer gertatzen da nazioz gaindiko auzitegiekin?

- Giza Eskubideen Europako Auzitegia
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- Nazioarteko Zigor Gortea

Jurisdikzio espainiarraren antolakuntzaren barruan al daude? Ez al ditu horrek batasun eta eskusibotasun printzipioak urratzen?

Oinarria:

- “Lege organikoz, baimendu daiteke tratatuak egitea haien bidez nazioarteko erakunde edo instituzio bati esleitzeko Konstituziotik eratorritako eskumen batzuen erabilera” (EK 93. art.)
- “Ahalmen jurisdikzionalaren egikaritzea, (...), legeetan eta nazioarteko itunetan zehaztatutako Epaitegi eta Auzitegiei bakarrik dagokie” (BJLO 2.1 art.)

2. Monopolio judiziala

Botere Judiziala osatzen duten organoak bakarrik dira, epaituz eta epaitua betearaziz, ahalmen jurisdikzionala egikaritzen dutenak.

Horrek galarazten du izaera jurisdikzionalik ez duen Estatuko edo Administraziooko beste edozein organok funtzio jurisdikzionala betetzea.

- Botere legegilea: adib. Ikerketa-batzorde parlamentarioak
- Botere exekutiboa: salbuespena administrazioaren abantailak (erabaki administratiboen exekutagarritasuna, zigortzeko ahalmena...)

3. Jurisdikzio-organoen jardueraren mugaketa

Jurisdikzio-organoen jarduketa epaitzera eta epaitua betearaztera mugatzen da, besterik ez. Oinarria: independentzia judiziala.

Dena dela, legeak beste funtzio batzuk esleitu ahal dizkie:

- EK 117.4 art.: “Epaitegi eta auzitegiek ez dute beste eginkizunik beteko, aurreko zenbakian adierazitakoak eta, edozein eskubide bermatzeko, legez espresuki ematen zaizkienak baino”.
- BJLO 2.2 art.: “Epaitegi eta Auzitegiek aurreko paragrafoan zehaztatutako funtzioak eta legeak berariaz edozein eskubideren bermetan esleitzen diren diezazkienak baino ez dituzte egikaritzeko”.

Funtzio nagusia = jurisdikzionala: epaitu eta epaitutakoa betearazi

- Gehi dakizkiokeen funtzioak:

- Legeek esleitu behar
- Edozein eskubide bermatzeko funtzioak

XII. LEGEZKO EPAILEA EDO LEGEAK AURRETIAZ ZEHAZTUTAKO EPAILEAREN PRINTZIPIOA

- Zentzu positiboa, EK 24.2 art.: “Era berean, denek dute eskubidea legeak aurrez ezarritako epaile arrunta izateko; abokatuaren defentsa eta laguntza izateko; beren kontrako akusazioaren berri jasotzeko; prozesu publiko bat izateko, bidegabeko atzerapenik gabe eta berme guztiekin; egoki diren frogabideak erabiltzeko beren defentsan; beren buruaren kontra ez deklaratzeko; beren burua errudun ez aitortzeko, eta errugabetasun-presuntzioa izateko”.
- Zentzu negatiboa, EK 117.6 art.: “Salbuespenezko auzitegiak debekatzen dira”.

Bi esangura:

1. ESANGURA POSITIBOA

a) Organo jurisdikzionalak epaitu behar duten kasuaren aurretik existitu behar dute LO bidez + BJLOk aurreikusi (salbuespen: EKk araututakoak eta nazioarteko auzitegiak).

b) Eskumena legeak aurreikusi behar du:

- orokorra (Espainia / atzerrikoa)
- objektiboa (objektuaren arabera)
- funtzionala (fase prozesalaren arabera: lehen auzialdia, apelazioan...)
- lurraldekoa (lekuaren arabera)

c) Banaketa arauak: lurralde berean maila bereko organoak daudenean. Irizpide objektiboek arautu behar.

d) Organo kolegiatuaren kasuan: auzitegia osatzen duten magistratuak + ponentea aukeratzeko arauak (BJLO 203.2 art.)

e) Oinarrizko eskubidea da: KAn babes-errekurtsoa tartera daiteke.

2. ESANGURA NEGATIBOA

“*Salbuespeneko auzitegiak debekatzen dira*” (EK 117.6 art.)

- auzi partikularra/zehatza epaitzeko sortutakoak
- eskumen arauak urratuz
- *ex post facto* sortutakoak

Setio egoeran zenbait delitu jurisdikzio militarren menpe jar daitezke.